

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuarekin lortu nahi dena, gastuak murriztea da, baita ere gure ingurunea zaintzea, energia berriztagarria erabiliko delako.

Bezeroa gure produktua ordaintzeko prest egongo da, elektrizitatearen gastua asko murriztuko delako. Argia dagoen bakoitzean mugikorra kargatzeko aukera egongo denez, erabilgarria izango da gure bezeroentzat. Sakeleko telefonoko bateria %100era iristean, automatikoki hau kargatzeaz utziko du, bateria gainkargatu ez dezan. Honetaz gain, funda botoi bat izango du non sakatzerakoan sakeleko telefonoa kargatuko du edo kargatzeaz utziko du

Funda pertsonalizatuak eskaintzen ditugu. Funda estandarrek eskainiko ditugu 45 eurotan, bezero guztiek gure produktua erosteko ahalmena izan dezaten. Funda pertsonalizatuak nahi izanez gero, sakeleko telefonoak Android ala Apple diren arabera, prezioak desberdinak izango dira, 60€ eta 70€ hurrenez hurren.

Bezeroak erosi duen funda estandarra (pertsonalizatu gabea) pertsonalizatu nahi badu, aukera izango du gure zerbitzu teknikora funda eramaten; 15€ Android-a bada eta 25€ Apple-a bada.